

BIRTUALITATE ERREALA

Anonimoa, Nabarra (2009.6.4)

Slavoj Zizek pentsalari Eslobeniarrak Youtuben eskegitako "The reality of the virtual" bideoetan aztertzen dituen ideia batzuk aurkeztu nahi ditut.

Modan dagoen "errealitate birtuala" terminoa erabat alboratu eta "birtualitate erreala" terminoagatik ordezkatzeko du. "errealitate birtualean" erabat existitzen ez den medio batean errealitatea eragiteari deritzo, "birtualitate errealar" ordea, errealitatea, efektibitatea, efektibotasuna erabat existitzen ez den zerbaitek eragindako efektu errealean bitartez sortua da.

Birtualitate erreala esplikatzeko "Lakanen" triangelua adibide erabiltzen ditu:

- **Birtualitate irudikatua:** Gure egunerokotasunean beste pertsona batekin topo egiterakoan, pertsona horren imaginarengandik lotsa eragile diren hainbat ezaugarri ezabatzen ditugu, kaka egitea, izerdi egitea... Ez dugu beraz pertsona errealekin topo egiten baizik eta pertsona birtualekin tratatzen dugu. Idealizazio batekin.
- **Birtualitate sinbolikoa:** Gurasoen autoritateak operatiboa izateko, era birtualean izan behar duela defendatzen du, autoritate hori praktikan jartzea inpotenziaren erakusle baita. Biolentzia gordinak inpotentzia imagina bat omen darama berarekin. Beraz autoritate sinbolikoak birtualean mantenu behar du operatiboa izan nahi badu.
 - Sinismenak: Sinismenak existitzen ez diren suposamen birtualak dira, inork ez ditu sinesten, soilik auresuposatzen dugu norbaitek sinesten dituela.
 - Gabonetako opariekin gertatzen zaiguna jartzen du adibide, gurasoek gabonetako jaietan sinesten dute aurreko hutsik ez egitearren eta aurreko ezjakinarena egiten dute gurasoei hutsik ez egitearren horrela, haiengandik jostagailuak jasotzen jarrai dezaten.
 - Maila politikoan ondorengo adibidea jartzen du: Inork ez du demokrazian sinesten, baina itxura gordetzen dugu. Inork hutsik egin nahi ez dion entitate birtualean demokrazia, norbaitek demokrazian sinesten duenaren sinismenak errealitatea estrapolatzen du. Funtzionatzen du.
 - Gure beste hainbat eguneroko sinismen, sinismen bezala funtzionatu dezaten maila birtualean mantendu behar dira, zeren berehalakoan sinesten baditugu, ideologiarentzat auto destruktiboa izanen da, ez gara jada subjeto normalak bezala agertzen, lelo bezala baizik. Bere pentsamolde politikoa edota erlijiosoa oso era errealean hartzen dituen norbaitengan zerbaitek monstrosoa dago, pertsona normal bat ez bailira bezala agertzen dira, muñeko batetan bihurtu balira bezala agertzen dira.

- **Errealitate irudikatua:** Imajinak gogorregiak dira gure pertzepziorako, katastrofeak, monstroak, zuzenean aurrez aurre topatzeko gogorregiak.
- **Errealitate sinbolikoa:** Hauen adibide formula zientifikoak direla dio, fisika kuantikoaren formulak funtzionatzen du, kontrastatua da baina ezin dugu gure eguneroko errealitatearen esperientziara isladatu.
- **Errealitate erreala:** Errealitate erreala esplikatzekeo pelikula batzuetara eta Freuden psikoanalisiara jotzen du Zizek jaunak. "The sound of music" filman Nazien kontrako Austriar erresistentzia agertzen da. Zizeken ustez ordea, filmaren barrenak sakonki aztertzen baditugu, Austriarrak era tradizionalen jantziak agertzen direla konturatuko gara, mundu motzeko Naziak balira bezala, eta Nazi okupatzaileak ondo jantziak, exekutibo korrupto eran, hau da Judu kosmopolita bailiran errepresentatuak agertzen dira. Pelikulan ofizialki ideologia demokratikoarekin bat egiten bada ere, amets faxistak era eskutuan agertzen dira.